

Amerika Kapitaina nazi bihurtu da: komikizaleen errebolta Trumpen AEBetan

Nola ote dago kontua AEBetan, Amerika Kapitaina ere esplizituki faxista bihurtu bada komikiaren azken zenbakietan. 1940ko hamarkadan sortutako pertsonaia nazien aurkako ikonoetako bat izan zen II. Mundu Gerran. Orain, Marvel etxearen azken erabakiak sutan jarri ditu komikizaleak.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Iazko uztaitetik bolanteari gogor eutsita gidatzen ari dira Marvel argitaletxea, ekaitza noiz pasako zain. Arrazoiak: iragarri zutela marraz eta izarrez jantzitako heroi amerikar erabatekoa, Amerika Kapitaina, Hydra taldeko kide dela; alegia, talde terrorista kriptonazi bateko partaide. Pertsonaiaren jarraitzaileek ezin izan dute jasan eta sare sozialetan haserrea adierazi dute, Marvelen kontrako boikota eskatzeraino.

Dena esaten hasita, badira ñabardurak: Hydra ez da zehazki talde nazi bat, nazi ohi batek sortu zuen arren –Wolfgang von Strucker baroiak– eta zeregin horretan lagun izan zuen arren Red Skull, Amerika Kapitainaren antagonista nagusia, eta hau bai, nazi petoa. Beraz, tira, ez dago diferentzia handiegirik, ezta? Milaka zalek behintzat ez dute alderik ikusten eta haien haserrea puztu da aurtengo martxoan, Marvelek Hydraren tixertak bidali dituelako komiki-dendetara, saltzaileak animatuz haiek



janztera pertsonaiaren bando-aldaketa kontaktzen duen *Secret Empire* seriea komertzialki sustatzeko. “Portaera antiseMITAK hedatzen ari dira munduan oraintxe. Egin nahi dudan azkeneko gauza da ‘Hail Hydra’ dioen kamiseta bat nire langile judutar zernahiari jantzaraztea”, adierazi dio Utah-ko komiki saltzaile batek *The Guardian* egunkariari.

Argitaletxearen bertsioa bestelakoa da. Ziurtatu dute zaleen kezak entzuten ari direla eta eskatu dute itzaroteko, ikusteko istorio-lerro honen bukaera zein izango den eta orduan ateratzeko konklusioak. Amerika Kapitainaren *twist* nazien arduradun nagusiak, Nick Spencer idazleak, zera txiokatu du: “Benetan badiogu ‘ez gaitzue eraman istorioetako gertakari txarretatik, bukaeran dena konpondu arren’, orduan istorioek ez dute biziraungo”. Argudio ona da, nork uka, eta auziari fikzioaren ikuspegitik helduz gero, badirudi Spencerrek arrazoiak daukala.

Baina, puntu honetara iritsita galde-tu daiteke ea istilu honen muinean fikzioaren mugei buruzko desadostasunak bakarrik ote dauden edo, kontrara, zerikusi handiagoa daukan AEBetako klima sozialarekin, zeinak azken hauteskundeetan Trump presidente bihurtu duen, eskuin muturra normalizatu eta “alt-right” izen komertzialarekin plazaratu diren neonazien presentzia areagotu. Nazi berri horiek Amerika Kapitaina erabiltzen dute orain supremazismo zuriaren alde eta, Marvelek erabileraren horiekin zerikusirik ez duela dioen arren, sinesgarritasun handirik gabe geratu da jakin denetik argitaletxearen jabe den enpresako zuzendari exekutiboak, Ike Perlmutterrek, Trumpen kanpaina finantzatu zuela milioi bat dolarrekin.

Hori ikusita, ulergarriagoa dirudi komikizaleek zentimo bat gehiago jarri nahi ez izatea halako super-bilauaren planak ordaintzeko. ■